# GUIA dependencia

## procedimiento de reconocimiento de la dependencia

eginaren eginez

**asociación de personas con discapacidad física de álava**

**arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkartea**

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteizko Udala

## Procedimiento de determinación de grado y nivel de Dependencia

El procedimiento se **iniciará a instancia de la persona** que pueda estar afectada por algún grado de dependencia o de quien ostente su representación. El procedimiento se iniciará mediante solicitud de la persona interesada, que se dirigirá a la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social. Una vez presentada, el procedimiento se impulsará de oficio por este Organismo Autónomo.



**Realizada la valoración** del solicitante, el IFBS **emitirá resolución** en la que se determinarán los servicios y prestaciones que correspondan al solicitante en atención a su grado y nivel de dependencia; esta resolución tendrá validez en todo el territorio del Estado.

En el Territorio Histórico de Alava existe normativa reguladora del procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia. Con carácter general, se establece que el organismo competente en materia de dependencia habrá de resolver dicho procedimiento en el plazo **máximo de seis meses**.

## ¿Cuáles son los criterios de valoración para determinar el grado y nivel de dependencia?

En el **Real Decreto 504/2007** de 20 de abril por el que se aprueba el **baremo de valoración de la situación de dependencia** establecido por la Ley 39/2006, se establecen los criterios objetivos de valoración del grado de autonomía de la persona, de

su capacidad para realizar las distintas actividades de la vida diaria, los intervalos de puntuación para cada uno de los grados y niveles de dependencia, y el protocolo con los procedimientos y técnicas a seguir para la valoración de las aptitudes observadas, en su caso.

En definitiva, el baremo de valoración de la dependencia, **mide la incapacidad o dificultad de la persona para realizar en su entorno habitual las actividades de la vida diaria y el grado de apoyo que necesita para realizarlas**, estas actividades son:

- Comer y beber
- Regulación de la micción y la defecación
- Lavarse
- Otros cuidados personales
- Vestirse
- Mantenimiento de la salud
- Transferencias corporales
- Desplazarse dentro del hogar
- Desplazarse fuera del hogar
- Tomar decisiones

El baremo fija una **puntuación máxima para cada una de las actividades**. Hay un baremo específico para las personas con discapacidad física y otro adaptado a personas con discapacidad intelectual y enfermos mentales (se valora la capacidad de tomar decisiones).

Cada uno de ellos tendrá valoración distinta en función de los tramos de edad: de 3 a 6 años, de 7 a 10 años, de 11 a 17 años y de 18 y más años.



El máximo que puede otorgar el baremo son 100 puntos.

Se ha establecido una Escala de Valoración Específica para los menores de 3 años en el Real Decreto por el que se aprueba el Baremo. Esta permite establecer tres grados de dependencia: moderada, severa y gran dependencia.

## ¿Qué es el Plan Individual de Atención?

Realizado en el proceso de reconocimiento de la situación de dependencia del solicitante, el Plan Individual de Atención, PIA, determinará las modalidades de intervención más adecuados a sus necesidades de entre los servicios y prestaciones económicas previstos en la resolución para su grado y nivel.

El solicitante o, en su caso, de su familia o entidad tutelar que le represente, podrá elegir entre las modalidades de intervención más adecuadas a sus necesidades de entre los servicios y prestaciones económicas previstos en la resolución para su grado y nivel.

## ¿Dónde hay que dirigirse para solicitar la valoración del grado de dependencia?



Las solicitudes se presentarán en el **Servicio Social de Base del municipio** correspondiente al domicilio de la persona solicitante.

En caso, de que la persona solicitante se encuentre domiciliada en Vitoria-Gasteiz, se presentarán en la **Oficina de Información y Atención Social** o en el **Centro de Orientación y Valoración**, ambos pertenecientes al Instituto Foral de Bienestar Socia

**Centro de Orientación y valoración :**

C/ Manuel Iradier , 27 bajo
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno. 945.15.87.91

• • • • •

**Oficina de Información y Atención Social:**

C/ Diputación, 13 bajo
01001 Vitoria-Gasteiz
Tfno 945.15.10.15

Las personas residentes en la provincia de Álava realizarán la tramitación en:

**Instituto Foral de Bienestar Social**

General Álava, 10-4º
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 151 015
Fax.: 945 151 017

• • • • •

## ¿Es posible solicitar que la valoración se realice en el propio domicilio de la persona dependiente si ésta tiene dificultades para desplazarse?

En principio y, una vez solicitada la valoración del grado de dependencia, los equipos constituidos a tal efecto se desplazarán al domicilio del solicitante para aplicar el procedimiento de valoración acordado.

## ¿Una vez producida la valoración puede ser revisado el grado?

Sí, se **podrá revisar el grado de dependencia** en atención a:

- Mejoría o empeoramiento de la situación de dependencia.
- Error de diagnóstico o en la aplicación del correspondiente baremo.

También pueden **ser revisadas las prestaciones** de atención a la dependencia y así en el mismo artículo se establece que estas prestaciones pueden ser modificadas o extinguidas por:

- Variación de la situación personal del beneficiario.
- Variación de los requisitos establecidos para su reconocimiento.
- Incumplimiento de las obligaciones de la Ley.



## Normativa de interes:

- Ley 39/2006 de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia.
- Real Decreto 504/2007 de 20 de abril por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006.
- Decreto Foral 39/2007, del consejo de Diputados de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el TH de Alava. BOTHA 14 mayo 2.007.

# mendetasun GIDA

## mendetasuna aintzatesteko prozedura

eginaren eginez

**asociación de personas con discapacidad física de álava**

**arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkartea**

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteizko Udala

# Mendetasun-gradua eta -maila aintzatesteko prozedura

Mendetasun-gradua eta –maila aintzatesteko prozedura **abiaraziko** da mendetasun-mailaren bat izan dezakeen pertsonak edo pertsona horren ordezkariak **hala eskatuta**. Interesa dutenek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Zuzendaritzan egingo dute prozedura hasteko eskaria. Eskaria aurkeztu ondoren, ofizioz abiaraziko du prozedura erakunde autonomo horrek.



Eskatzailearen mendetasun-maila **balioetsi ondoren**, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) zehaztuko ditu bere **ebazpenean** eskatzailearen mendetasun-gradu eta -mailaren arabera dagozkion zerbitzu eta prestazioak. Ebazpen horrek estatu osoan izango du balioa.

Arabako Lurralde Historikoan bada mendetasun-egoera aintzatesteko prozesura arautzen duen legerik. Oro har, legeak agintzen du mendetasunaren alorrean eskumena duen erakundeak **sei hilabeteko epean** bukatu beharko duela prozedura hori.

# Zein dira mendetasunaren gradua eta maila zehazteko irizpideak?

Apirilaren 20ko Errege Dekretuak onartu zuen **mendetasunen bat duten pertsonen egoera aintzatesteko baremoa** (halaxe ezarrita baitago 39/2006 Legean), eta irizpide objektiboak ezarri zituen honako alderdi hauek balioesteko: pertsona baten autonomia-maila, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak gauzatzeko gaitasuna, mendetasunaren gradu eta maila bakoitzaren kalifikazio-tarteak, eta, hala badagokio, behatutako gaitasunak balioesteko jarraitu beharreko prozedura eta tekniken protokoloa.

Laburbilduz, esan daiteke mendetasuna balioesteko baremoak neurtzen duela **norbaitek bere ohiko ingurunean eguneroko bizitzako jarduerak egiteko duen ezintasuna edo zailtasuna, eta horiek gauzatzeko behar duen laguntza-maila**. Hona hemen eguneroko bizitzako jardueren zerrenda:

- Jan eta edatea
- Gernu-egitea eta sabel-hustea kontrolatzea.
- Bere burua garbitzea
- Gorputzeko beste zainketa batzuk
- Janztea
- Norberaren osasuna zaintzea
- Gorputz-transferentziak egitea
- Etxean batetik bestera ibiltzea
- Etxetik kanpo joan etorriak egitea
- Erabakiak hartzea

Baremoak **gehienezko puntu-kopuru bat** ezartzen du **jarduera bakoitzarentzat**. Ezintasun fisikoa duten pertsonentzat baremo berezi bat dago, bai eta buruko ezintasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzat moldatutako beste bat ere (azken hauetan erabakiak hartzeko gaitasuna hartzen da aintzat).

Horietako bakoitzak hainbat balioespen izango ditu honako adin-tarte hauen arabera: 3 eta 6 urte bitartean, 7 eta 10 urte bitartean, 11 eta 17 urte bitartean, eta 18 urte eta hortik gorakoak.



Baremoak 100 puntu eman ditzake, gehienez ere.

Hiru urtetik beherakoentzat ere balioespen-eskala berezia ezarri du baremoa onartzen duen Errege Dekretuak. Eskala horretan hiru mendetasun-gradu daude: mendetasun arina, larria eta handia.

## Zer da Arreta Programa Indibiduala?

Eskatzailearen mendetasun-egoera aintzatesteko prozedura burutu ondoren, Arreta Programa Indibidualak zehaztuko du zein esku-hartze mota moldatzen diren hobeen pertsona horren beharrizanetara, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ebazpenean pertsona horren gradu eta mailarako aurreikusitako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen artean.

Ebazpenean bere gradu eta mailarako aurreikusten diren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetatik eskatzailearen beharrizanetara hobekien moldatzen diren horien artean, eskatzaileak aukeratu ahalko du •'5fedo, hala badagokio, hura ordezkatzen duen ahaide edo erakunde babesleak•'5f zer esku-hartze mota jaso nahi duen.

## Non egin behar da mendetasun-maila balioesteko eskaera?



Eskatzailea erroldatuta dagoen **udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan** aurkeztu beharko da eskabidea.

Eskatzailea Gasteizen erroldatuta badago, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpe dauden bi bulego hauetako batean aurkeztu beharko du eskabidea: Gizarte Informazio eta Arretarako Bulegoan edo Orientazio eta Balorazio Zentroan.

**Orientazio eta Balorazio Zentroa:**

Manuel Iradier kalea, 27. behea
01005 Gasteiz
Telefonoa: 945 158 791

• • • • •

**Gizarte Informazio eta Arretarako Bulegoa**

Diputazio kalea, 13. behea
01001 Gasteiz
Telefonoa: 945 151 015

• • • • •

Arabako gainerako udalerrietan erroldatuta daudenek helbide honetan egingo dituzte izapideak:

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea**

Alava Generala Kalea, 10-4.
01005 Gasteiz
Telefonoa: 945 151 015
Faxa: 945 151 017

• • • • •

## Mendetasuna duen pertsonak mugitzeko zailtasunak baditu, eska al daiteke balioespena etxean egitea?

Bai. Oro har, eta mendetasun-gradua balioesteko eskaria egin ondoren, horretarako eratuko diren taldeak eskatzailearen etxera joango dira dagokion balioespen-prozedura aplikatzeko.

## Ba al dago balioespena bukatu ondoren gradua berrikusterik?

Bai, **mendetasun-gradua berrikus daiteke**, gertaera hauek aintzat hartzeko:

- Mendetasun-egoera hobetzea edo larritzea.
- Graduari dagokion baremoa aplikatzean edo diagnosia egitean akatsen bat egon izana.

Mendetasunaren arretarako **prestazioak ere berrikus daitezke**; izan ere, artikulu berean ezarrita dago prestazio horiek honako arrazoi hauengatik alda edo ezezta daitezkeela:

- Onuradunaren egoera aldatu izana.
- Pertsona bat onuradun gisa aintzatesteko ezarritako baldintzak aldatu izana.
- Legeak ezartzen dituen eginbeharrak ez betetzea.



## Lotutako legedia:

- **39/2006 Legea, abenduaren 14koa**, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- **507/2007 Errege Dekretua**, apirilaren 20koa, mendetasunen bat duten pertsonen egoera balioesteko baremoa onartzen duena; halaxe ezarrita baitago 39/2006 Legean.
- **39/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena**. Honen bidez arautzen dira Arabako Lurralde Historikoan mendetasun-egoera onartzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak. ALHAO, 2007ko maiatzaren 14a.